

BIDEZKO MERKATARITZA

Ekoizpena eta merkataritza **pertsona guztien zerbitzura** jartzen duen **alternatiba** bat da, beti ere Ama Lurra errespetatuz.

Bere **oinarria ekoizleek** beraien lanagatik konpentsazio justu bat dutela **ziurtatzea da**, erlazio eta baldintza komertzial duin batzuk dituztela eta ingurumena errespetatzen dela.

Era honetan **kontsumitzaileak** kalitatezko produktu bat eskuratzen du, osasuntsua dena eta istorio duin bat duena.



PRINTZIPIOAK

- **Soldata justua** bermatzen da (burtza finantzierotan erabakitzen ez dena); produktuaren kostua + komunitatearen garapenerako bideratzen den prima.
 - **Epe luzerako erlazioak** mantentzen dira ekoizleekin.
 - **Aurrefinantzaketa** (%50a eskaera egiterakoan eta gainontzeko %50a entregatzerakoan).
 - **Ingurugiroarekiko errespetua** (ekoizpen ekologikoa).
 - **Lan baldintza duinak**, haur zein nagusien esplotaziorik gabea.
 - **Parte-hartzea** bultzatzen da erabakiak hartzeko orduan, funtzionamendu **demokratikoaren** bidez.
 - **Genero berdintasuna** bultzatzen da emakume eta gizonezkoen artean.
 - Ez daude bitartekari espekulatzailak (hain komunak direnak ohiko merkataritzan).
- FAIRTRADE** edo **HARREMAN zigitua**: Produktu batek bidezko merkataritzako irizpideak jarraitu dituela bermatzen du.



MERKATARITZA KONBENTZIONALA

Munduko merkataritzako joku arauak (gaur egungo kolonizazio era), herrialde aberats eta enpresa multinazionalak ezarritakoa da; nekazari eta ekoizle txikiak baztertzen ditu.

Lehiakortasuna eta etekin ekonomiko maximoa arau bihurtu da, ingurumen eta kostu sozialak alde batera utziz: pobrezia, desberdintasunen haunditzea eta bazterketa (Hegoaldekoa zein Iparraldekoa), errekurso naturalen xahutzea, kutsadura...



¿Zein portzentairekin geratzen da Azukre edo eta Kafe ekoizlea?

- % 2-5 **Merkatartiza Konbentzionalean**
- % 12-33 **Bidezko Merkataritzan**

*Iturria: Observatorio de las Corporac. Transnacionales de Ideas

JOKU ARAUAK "Merkataritza askearenak" Iparraldeko interesen **babesean** oinarritzen da, "justizia" alde batera utziz. Estatu interbentzioen bidez arantzelak edo kuotak, subsidioak, hesi ez arantzelarioak etab. ezartzen ditu. Hegoaldeko ekoizleak Iparraldekoek kontrolatzen duten inport-export negozioetan erortzeko.

"Hegoaldeko exportazioen %90a Iparraldeko multinazional eta hauen arau kapitalista basatien menpe daude"

ONDORIOAK. Gaur egungo sistema krisia eta krisi multidimentsionala, non irizpide ekonomikoak agintzen duten, irizpide sozial eta ingurugiroen gainetik.

BIDEZKO MERKATARITZA COMERCIO JUSTO



Ingurumenarekiko eta giza eskubideen errespetuagatik !!

"Iparraldeko herritarrak ez dira kontziente nondik datozen kontsumitzen dituzten produktuak, eta ez dakite ekoizleei hauek ekoiztea zenbat kostatzen zaien"

Rigoberta Menchú (Nekazaria eta Bake Nobel sariduna)

Produktu bakoitzaren atzetik istorio bat dago
EZAGUTU EZAZU!!

Beste merkataritza mota bat, posible den beste mundu batentzat